

DBH3 EUSkara: "**Gezurrak idazteko artea**"  
Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Euskal narrazio-gintzako aldiak, obrak, autoreak eta ezaugarriak ezagutu eta erlazioanatu.	<p>1.1 Euskal ohiturazko eleberriaren eta eleberri modernoaren <b>ezaugarriak bereizten</b> ditu.</p> <p>1.2 Euskal narrazio-gintzako erreferentziarako <b>autoreak eta haien lan esanguratsuen izenburuak erlazioanatu</b> eta denboran kokatzen ditu (1950eko hamarkadaren aurretikoak eta ondorengoak).</p> <p>1.3 Euskal narrazio-gintzako erreferentziarako lanen <b>izenburuak eta haien testu zatiak erlazioanatu</b> ditu.</p>
2. Literatura-testu batean, narratzailea identifikatu eta eskatutako baldintzen arabera testua eraldatu.	<p>2.1 Euskal narrazio-gintzako erreferentziarako testu zatiak darabilten narratzaile motarekin erlazioanatu ditu, <b>erlazioak justifikatzeko testuko adibideak</b> emanaz.</p> <p>2.2 <b>Narratzaile eraldaketak egiten</b> ditu aditza zuzen idatziz, pertsona kontuan izanik eta komuntadura zainduz.</p>
3. Emandako literatura-testuetan pertsonaiek egiten, esaten, pentsatzen... dutena aztertuz, haien ezaugarri bereizgarriak ondorioztatu eta justifikatu; eta izaeraren arabera ondoriozta daitezkeen ekintzak hautatu.	<p>3.1 Testu ezagunetako pertsonaien <b>karakterizazioak</b> haien <b>pentsamendu, sentimendu, ekintza eta hitzekin</b> erlazioanatu ditu, eleberriei buruz ikasitakoa edota bere esperientzia baliatuz.</p> <p>3.2 Pertsonaia baten deskribapeneko ekintzak, hitzak, pentsamenduak... kontuan izanik, <b>pertsonaia deskribatzeko adjektibo egokiak hautatzen</b> ditu.</p> <p>3.3 Pertsonaia deskribatzeko erabil daitezkeen adjektiboek adierazten dutena <b>pertsonaiaren hitzen bidez, haren ekintzen bidez edota haren pentsamendu edo sentimenduen bidez</b> adierazten du.</p>
4. Narrazioen egiturako elementuak eta euren arteko erlazioak kontuan hartuz, eta autonomia-maila onargarria erakutsiz, nor bere testua planifikatu eskema baten bidez.	<p>4.1 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementu bakoitzerako egon daitezkeen <b>aukerak</b> proposatzen ditu.</p> <p>4.2 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementuentzat proposatutako aukerak <b>baloratzen eta erabakiak hartzen</b> ditu (askotariko irizpideak baliatuz: beste elementuekiko koherentzia, sinesgarritasuna, erakargarritasuna, etab.).</p> <p>4.3 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementuei buruz hartutako erabakiak <b>idatziz</b> adierazten ditu; planifikazio-orrialde batean jasotzen du.</p>
5. Testuaren kohesioa eta zuzentasuna bermatzeko landutako baliabideak autonomiaz aplikatu, emandako testuetan nahiz norberarenean.	<p>5.1 Esaldietan adierazitako ekintzak zehaztutako ordenan lotzen ditu, ekintzen arteko denbora-erlazioak adierazteko <b>denborazko testu-antolatzaile egokiak</b> erabiliz.</p> <p>5.2 Zuzen deklinatzen ditu eskainitako izen-sintagmak (<b>leku-denborazko kasuak, bereziki</b>). <b>Salbuespenak identifikatzen eta azaltzen</b> ditu.</p>
6. Kasuan kasuko literatur lehiaketa-sarietarako narrazioak egokitu (Madalen sariak, Beldurrezko ipuin lehiaketa, Madelon sariak, Asun Casasola...)	<p>6.1. Narrazio-egiturari jarraituz eta pertsonaia karakterizatuz, <b>narrazio-istorio zuzena idatzi, berrikusi eta entregatzen</b> du dagokion lehiaketan</p>
7. <b>Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa</b> aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>7.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak <b>gramatikalki zuzenak</b> dira.</p> <p>7.2 Idatzizko testuetan <b>ortografiari</b> erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>
8. <b>Ahozko tertulia literarioa</b> eraikitzea helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu	<p>8.1 Irakasleak emandako aukeren artean <b>irakurketa-liburu bat hautatzen</b> du.</p> <p>8.2. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko <b>gidoi</b> bat prestatzen du.</p> <p>8.3. <b>Tertulia literarioa</b> egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.</p> <p>8.4. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko <b>begirunea adierazten duten esapideak</b> txertatuz.</p>